

Ordenagailu bidez sortutako gizaki birtualekin egindako lehen filma izango da Hironobu Sakaguchi zinemagilearen *Final Fantasy* iraultzailea.

2001. urteko udan estreinatuko da.

Hildako zinema izarrek berpizteko aukera emango du teknologia digitalak.

Iñaki Iazkano

Zinema digitalaren lehen harria da *Final Fantasy* filma. Bertan, ordenagailuz sortutako aktore birtualek benetakoen lekua bereganatuko dute estreinakoz. *Blue Planet* eta *Vortex* zientzia-fikziozko filmen proiektuak izoztuta geratu ostean, Hironobu Sakaguchi zinema zuzendariaren *Final Fantasy* izango da ordenagailu bitartez sortutako gizakiekin egindako lehen filma.

Duela hoge hilabete hasi ziren *Final Fan-*

Final Fantasy

Aktoreen amaiera?

tasy filmatzen, Honoluluko Harbor Court auzoko eraikin estrainio batean. Konputagailuetan aditu diren 150 artista grafikok osatzen dute proiektuaren bizkarrezurra. 75 milioi dolarreko aurrekontua du filmak. Silicon Graphics Octane ordenagailuak —munduko garatuenak— funtsezkoak gertatu dira fantasiak errealitatearen itxura lor dezan. Teknikarik aurreratuenak erabili arren, minutu bakar bat sortzeak astebeteko lana eskatzen du. Aurpegiko keinuak birsortzea izan da zailena. Fotogramaz

natzea ezinbestekoa izan da keinuetan zein begiradetan naturaltasuna erdiesteko.

Final Fantasy filmak izenburu bereko bideo-joko saga ezagun bat du oinarri. Ekoitzitako bideo-joko horien bidez lortutako arrakasta zinemaren lortu nahi du Hironobu Sakaguchik. Hortaz, ekoizpena ez ezik, zuzendaritza ere bere gain hartu du *Final Fantasy* filmean.

Istorioa 2065. urtean dago girotuta. Lur planetan suntsipena da nagusi. Hiriak hutsik daude, eta bizimodua latza da oso. Arraza estralurtar lagarri batek planeta menperatu nahi du. Gizaki talde batek, baina, gogor eutsiko dio borrokari.

Garapenaren estetika, etikaren azpigarapena

Argumentua ez da oso orijinala, zinez. Hala eta guztiz ere, arrunt samarra dirudien istorio horren erraietan bitzta filosofia konplexu bat aurki daiteke. Sortzen eta deusezten ez den energia bat bezala ulertzen baita bitzta. Eraldatzen den energia bat bezala, alegia. Heriotzari ez zaio beldurrik, eta maitasuna da bizitzaren arima. Ohi lege, heroi guztiak —

etnia ezberdinekoak izanik ere— estatu batarrak dira. Protagonistak birtualak direnez gero, ez da zinema izar ezagunik izango filmean. Hala eta guztiz ere, Alec Baldwin, James Woods, Ving Rhames, Steve Buscemi, Donald Sutherland eta Peri Gilpin aktoreek, eta Ming-Na Wen bikoizleak (Mulanen ahotsa) euren ahotsa ipiniko diete *Final Fantasy* filmeko pertsonaia nagusiei. Square USA ekoiztetxeak 2001. urteko ekainaren 15erako iragarri du *Final Fantasy* film berritzailearen estreinua.

Internetek *Final Fantasy* filmaren irudi batzuk ikusteko aukera eskaintzen du dagoeneko. Ikusgai dauden argazkietan pertsonaia birtuala benetako gizaki batetik bereiztea zail egiten da. Trailer-etan, ordea, gizaki birtualen begirada hotzek nahiz keinu mekanikoek agerian uzten dute euren artifizialtasuna. Teknologia garatu ahala, ezberdintasun horiek leunduz joango dira, noski. Zinemako izar birtualak sortzeaz gain, zendutako zinema izarrek ere berpiztea posible —zilegi?— izango da. Etikak dirudi muga bakanra. Dena dela, pertsonaia birtualetan gizakiaren sentimenduak klonatu ordez, gizakiaren baitan pertsonaia birtualen sentimendurik eza iltzatzen ari dela ematen du. *Blade Runner* urrungi dago oraindik... tamalez.

Ordenagailuz sortutako neska hau lehen zinema izar birtuala bihurtu daiteke.



ANTZERKIA

Ikaro. ■ (Maskarada). Ostegunean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 20:00etan.

Dama eta kardinala. ■ (Txalo). Ostegunean, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30etan.

Kaioa eta katua. ■ (Txamuskina). Ostegunean, Ordiziko Herri Antzokian, 11:00etan nahiz 15:00etan.

Visto y no visto. ■ (Faemino y Cansado). Ostiralean, Gasteizko Principal Antzokian, 20:30etan.

Los emigrados. ■ (Txalo). Ostiralean, Zornotzako Zornotza aretoan, 21:00etan.

Histerias de la historia. ■ (Stan Treck). Ostiralean, Errenteriko Erretereria kulturunean, 20:00etan.

Entiéndeme tú a mí. ■ (El Club de los XXI). Ostiralean, Eibarko Hezkuntz Esparruan, 20:30etan.

El pianista del océano. ■ (Tanttaka). Ostiralean, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15etan.

Arraultza delikatuak. ■ (Hika). Ostiralean, Deustuko Hizkuntza Eskolan, 20:00etan.

Ipuin kontalaria. ■ (Hortzmuga). Larunbatean, Elorrioko Arriolako Ateneoan, 17:00etan.

ZINEMA

El trabajo (film laburra) + **Cube** ■ (Zuz: Vincenzo Natali). Ostegunean, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:00etan.

Buena Vista Social Club. ■ (Zuz: Wim Wenders). Ostegunean, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean, 22:00etan.

Festen (Celebración). ■ (Zuz: Thomas Vinterberg). Ostiralean, Irungo Amaia Antzokian, 20:00etan.

Haragia (Begoña Vicarioren film laburra) + **Ione, igo zerura.** ■ (Zuz: Joseba Salegi). Zinemaldia Euskaraz zikloa. Ostiralean, Iruñeko Golem Baiona zinema aretoetan, 20:00etan.

Mallrats. ■ (Zuz: Kevin Smith). Astelehenean, Bilboko La Merced aretoan, 20:30etan.

Vampiros. ■ (Zuz: John Carpenter). Asteazkenean, Getxoko Getxo Antzokian, 20:30etan.

Baliteke aktore birtualek hezur-mamizkoak ordezkatzeko aurki

